

Document d'information de la section du Pays basque du MFE (1964-1968)

Légende: Document de présentation de l'organigramme du Mouvement fédéraliste européen (MFE) publié entre 1964 et 1968. Ce document inclut une invitation à adhérer à la section du Pays basque du MFE, basée sur le principe de respect mutuel entre tous les peuples de l'Europe et offrant un forum leur permettant de s'exprimer de façon optimale à l'échelon régional.

Source: "Document d'information de la section du Pays Basque du MFE", MFE/F-16 11/1964 - 23/04/1968, Archives historiques de l'Union européenne, Institut universitaire européen. Florence.

Copyright: Archives historiques de l'Union européenne

URL: http://www.cvce.eu/obj/document_d_information_de_la_section_du_pays_basque_du_mfe_1964_1968-fr-567270f5-fd46-497d-b644-13e12958ef24.html

Date de dernière mise à jour: 20/02/2014

EUROPAZALE FEDERALISTEN MOIMENDUA

ESKUAL-HERRIKO
BILTZARRA

Behin-behingo egoitza: M^e MANIORT-en etxean, 16 Osuna karrika - MIARRITZE. Tél. 24.13.04.

Miarrizetik,

Herritar adiskidea,

Europazale Federalisten Moimenduan parte hartzera gomitatzen zaitugu, Eskual-Herri-ko Biltzarraren bidez.

● Moimendu hau zer den :

- Olde bat erresumen arteko legeen araberrako biltzar bat, alderdikeriarik gabe Europazaleak milaka biltzen dituen, Europa guzian eskualdeka moldatuak diren batasunen bidez.
- Olde berri bat, gogoz FEDERALISTA : 1962 urtean, Montreux hirian Federalistek finkatu zuten ageria onarturik, huna zer proposatzen duen :

■ POLITIKAKO antolamendu baten bidez, Federalismaren arabera, naturalezak moldatu dituen batasunentzat, bakoitzaren BEREGAINASUNA eta guzieren BATASUNA, nor bederen eta ororen gerizatuko duen bilduma batean.

■ EKONOMIAKO antolamendu baten bidez, mende berriko teknikaren legeak eta gizonaren errespetua eta zoriona elgarrekin ezkontzea.

- EUROPAZALEA da Moimendu hau eta dio erresuma nagusiak, federalismaren arabera, lur-aldeka moldatzen diren mementoan, Europa ez ditakela sanoki apaila federalismaren legeri jarraikiz baizik. Oraiko europatiar erresumek berez-bere betetzen ez dituzten karguak eta xedeak, guzieren onetan betetzen ahal lituzke Europako populuen Batasunak, eta harek bakarrik.

● Huna noia den moldatua M. F. E. oldearen burua :

- Biltzar nagusiaren lehendakari edo president :

Etienne HIRSCH jauna,
Euratom batasunaren president ohia.

- Idazlari lehen Orio GIARINI jauna (Zurich)
- Bulegoko lagun Germain DESBCEUF (Marseille)
Jean-Pierre GOUZY (Paris)
Ferdinand KINSKY (Munich)
Lorenzo MARINI (Venise)
Chanoine ORBAN (Mons)
Umberto SERAFINI (Rome)
- Buruzagitza 6, rue de Trévis, PARIS (9^e).

M.F.E. oldearen Eskual-Herriko Biltzarra zer den :

- Gure eskualdeko BATASUNA, beregaintasunarekin, M.F.E. oldearen Biltzar Nagusiak erresumen arteko Batasunean partzuer bezala ezagutu duena, 1966 urteko Martxoan deliberaturik.
- Eskual-Herri guzian hedatzen da, hots zazpi probintzietan, zeren Europa federal batean, ekonomiaz eta jendez, naturalezaren araberrako eskualde bakar bat egiten dute zazpiek.
- Bederazka onar dezazke Eskual-Herrian bizi diren guziak, legez Frantsez edo Español direnak, beraz :
 - Jitez Eskualdun direnak, beren mintzaira eta jakintza berezia, eta beren herrialdeko bizipideak Europaren batasunak dituela salbatuko ikusten duten ber, federalismaren araberrako, bakean
 - Jitez Eskualdun izan gabe hemen bizi direnak, Eskual-Herriaren nortasuna sustatu nahi duten ber, huri atxikiak direlaketz, eta beren familiaren geroaz grifatuak baitira, ezen eskualde hunen bizipide aberatsak, gero eta gehiago tratatzen ditu erresumaren erdirat denen biltzeak.
- Beherean, bertze biltzar mota-guzietarik berex da eta, gainean, Europako Biltzar Nagusiari xuxenka lotua dago. Horrela biltzar erne bat bilaka ditake zazpi probintzietan eta biharko Europaren eraikitzean bere tokia har dezake.
- Gogo berri batean asmatua da, zentzu onez orhatua, federalismaz jositia, oraiko mendeari eta Europari doakioten ernetasunaz hazia. Egungo Europatiar jendetzearen aintzinamenduari darraikiola, Europako populu guzietan oihu egiten duten batasun-lehia eskualde bakoitzean adiarazi behar du, elgarren errespetuan eta denen arteko buruzagitza baten legepean.

Herritar adiskidea,

Gure gogoetak zureak balin badira, Europazale Federalisten Moimenduan sar zaite « Eskual-Herri » Biltzarraren moldatzean parte hartuz. Zure urte-saria egor beherean ezartzen dugun zuzenbiderat (10 F gutienetik. Gazteek eta ikasleak : 10 F. gutiena)

Ondotik, Bulegoaren hautatzea bere gain hartuko duen Biltzar bat bilduko da: Bulego hau, Probintzia bakoitzaren zuzendaria izango da federalismaren araberrako batasun batean.

Eskual-Herriaren geroa Europaren baitan finkatu nahi dugunek, gure eskualdea elgarrekin apaila dezagun :

Behin-behingo Bulegoa :

| | |
|---------------------------------------|---------------------------------------|
| M ^e Maurice ABEBERRY jauna | M ^e J.M. MUGURUZA jauna |
| M ^e René DELZANGLES jauna | Etienne SALABERRY jauna |
| Paul DUTOURNIER jauna | Carlos SANTAMARIA jauna |
| Andre ITHURRALDE jauna | Pedro TURULLOLS AGUIRRE jauna |
| Paul LEGARRALDE jauna | M ^e Maite MANIORT anderea. |

N.B. — Gutunak eta urte-sariak egor zuzenbide huntarat :

M^e Maite MANIORT anderea, 16, Osuna karrika, MIARRITZE.

MOUVEMENT FEDERALISTE EUROPEEN

Section "PAYS BASQUE"

Siège provisoire : chez Maître MANIORT, 16, avenue d'Osuna - BIARRITZ. — Tél 24.13.04

Biarritz, le

Cher Compatriote,

Nous sollicitons votre adhésion à la Section « Pays Basque » du MOUVEMENT FEDERALISTE EUROPEEN.

Qu'est le M.F.E. ?● **Le M. F. E. est :**

— un MOUVEMENT qui, sous la forme juridique d'une Association internationale, rassemble sans préoccupation partisane des dizaines de milliers d'Européens dans ses UNIONS REGIONALES réparties dans toute l'Europe ;

— un Mouvement neuf, d'esprit FÉDÉRALISTE, qui se réfère à la Charte Fédéraliste de Montreux de 1962 pour préconiser :

■ une organisation politique basée sur une société fédérale où toutes les communautés naturelles se voient reconnaître l'AUTONOMIE qui leur est indispensable, et se voient permettre leur ASSOCIATION dans un ensemble chargé de leurs intérêts supérieurs et communs ;

■ une organisation économique capable de concilier les exigences de la technique moderne avec le respect et l'épanouissement de la personne humaine.

— un Mouvement EUROPEEN, qui estime qu'à l'heure des grands ensembles continentaux, eux-mêmes fédéraux, l'Europe ne peut se construire viablement que selon le principe fédéral. Seule la Fédération Européenne constituée par toutes les communautés européennes peut assurer les fonctions et les responsabilités communes que ne remplissent pas les Etats actuels confrontés les uns aux autres.

● **Le M. F. E. présente les structures générales suivantes :**

— Président du Comité Central... **M. Etienne HIRSCH**,
ancien Président de l'Euratom.

— Secrétaire général **M. Orio GIARINI** (Zurich)

— Membres du Bureau Exécutif **MM. Germain DESBCEUF** (Marseille)
Jean-Pierre GOUZY (Paris)
Ferdinand KINSKY (Munich)
Lorenzo MARINI (Venies)
Chanoine ORBAN (Mons)
Umberto SERAFINI (Rome)

Qu'est la section "PAYS BASQUE" du M. F. E. ?

- Elle est une UNION REGIONALE autonome que le Comité Central du M.F.E. a reconnue comme membre direct de l'Association internationale.
- Elle couvre la REGION BASQUE, c'est-à-dire les Sept Provinces basques traditionnelles qui, dans le cadre fédéral européen, constituent une communauté humaine et économique naturelle.
- Elle est ouverte, à titre individuel, à tous les habitants de la région basque, citoyens français et espagnols, soit :
 - les Basques d'origine, convaincus que la solution pacifique du fédéralisme européen résoud le problème crucial de la sauvegarde de leur personnalité linguistique et culturelle, et du développement économique de leur communauté régionale ;
 - les habitants d'origine non basque, intéressés à juste titre au maintien de la personnalité profonde du Pays basque auquel ils se sont attachés, et préoccupés de leur avenir familial dans une économie régionale riche de possibilités, mais de plus en plus compromise par le centralisme étatique.
- Elle est, à la base, indépendante de toutes les organisations et associations existantes et, au sommet, directement rattachée au Siège Central européen. Ce qui la rend susceptible de devenir une organisation dynamique, rayonnant sur les Sept Provinces, et de prendre d'ores et déjà place dans l'édification de l'Europe fédérale de demain.
- Elle est conçue dans un esprit nouveau, fait de logique naturelle, de raisonnement fédéraliste, d'initiative moderne et européenne. Elle s'insère dans l'actuelle évolution de la société européenne et elle se doit d'exprimer, à l'échelon régional, l'aspiration profonde à l'union, dans le respect mutuel et sous une autorité commune, de tous les peuples de l'Europe.

Cher Compatriote,

Si votre pensée concorde avec la nôtre, participez à la création de la Section "PAYS BASQUE" du MOUVEMENT FÉDÉRALISTE EUROPEEN.

Adressez votre cotisation annuelle de 15 F au compte sous-indiqué. Ultérieurement sera convoquée une Assemblée constitutive à qui appartiendra d'élire le Bureau.

Pour l'avenir du Pays Basque dans l'Europe, créons ensemble notre région.

Le Bureau Provisoire :

M^e Maurice ABEBERRY
M^e René DELZANGLES
M. Paul DUTOURNIER
M. André ITURRALDE
M. Paul LEGARRALDE

M^e J.M. MUGURUZA
~~**M. Etienne SALABERRY**~~
M. Carlos SANTAMARIA
M. Pedro TURULLOLS AGUIRRE
M^e Maite MANIORT